

INFORMAZIO OHARRA

Euskarari buruzko ikerketa berritzaile batek agerian utzi du hizkuntzaren eta euskal komunitatearen estimazio indize altua Nafarroan

Eusko Ikaskuntzak eta Nafarroako Gobernuak – Euskarabideak euskara sustatzearen inguruan erresonantzia soziala lortu ditzaketen diskurtsoak biltzen dituen ondorioen txostena aurkeztu dute

Iruñan, 2025eko apirilaren 1ean. Eusko Ikaskuntzak Nafarroako Gobernuaren-Euskarabidearen laguntzarekin sustatutako ikerketa baten emaitzak aurkeztu dira Iruñean, gaur, apirilak 1. Ikerketa horren helburua Foru Komunitateko errealitate soziolinguistikoa eta euskararen sustapenaren inguruan herritarren artean erresonantziak lortu ditzaketen balioak hobeto ezagutzea da.

Ekitaldian, Eusko Ikaskuntzako lehendakari **Ana Urkizak** hartu du parte; Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilari **Ana Ollok**; proiektuaren ikerlari eta zuzendari zientifiko **Xabier Erize** eta **Carlos Vilchese**; eta Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaile **Javier Arakamak**.

Ana Urkizak ireki du saioa ikerketa honen jatorria adieraziz “Aniztasunaren kudeaketa demokratikoa Nafarroan izeneko lan-programa parte hartzaile, hausnartzaile eta irekian izan du (...) zeina 2019tik 2023ra bitartean Nafarroako Gobernuaren eta Eusko Ikaskuntzaren arteko hitzarmenaren bidez gauzatu zen dela Nafarroako Foru Komunitatea bizikidetzaren indarguneak eta ahuleziak ezagutzea xedea zuen”. Ikerketa taldea zoriondu du “Nafarroan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko jarrerak ezagutarazteagatik eta etorkizunera begira egin daitekeen bidearen norantza argitzeagatik”. Amaitzeko, ikerlanaren balioa azpimarratu du, “izan ere, agerian uzten du hizkuntza bat (ezein hizkuntza) ez baita gizartea zatitzeko elementua, baizik eta, identitate guztiak errespetatuz, integrazioarako bidea”.

Ondoren, Ana Ollok, ikertzaileei egindako lana eskertu eta haien ibilbidea balioan jartzeaz gain, arrazoi bikoitzagatik azterketaren garrantzia azpimarratu du. Esparruari eta xedeari dagokionez, Ana Ollok gogora ekarri du “Nafarroako Gobernuak Eusko Ikaskuntza

bezalako erakundeekin egiten duen elkarlan egonkorraren aldeko apustuaren testuinguruan kokatzen dela, hizkuntza politikaren inguruko eztabaidak eta plangintzak euskarri eta ikuspegi zientifiko eta analitiko batekin jorrazteko aukera ematen duena. Horrek, gaineratu du, lanketa lasaia eta sakona errazten du, eta, gainera, gure gizarteak mugitzen dituen iritzi eta korronteak haztatzen ditu”. Eta ildo horretan, lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariak azpimarratu du ikerketa horiek baliagarriak direla Nafarroako Gobernuaren hizkuntza-politikak bideratzeko, “gure erkidegoko aniztasuna islatzen eta kontuan hartzen duelako, pluraltasunetik eta dibertsitatetik bizikidetzaren –baita hizkuntzari dagokionean ere– garrantziaren alde egiten duelako, eta, azkenik, euskara balio erantsi gisa ikusten duelako Europako testuinguruan eta gero eta mundu unformatuago batean”.

Ikerketaren abiapuntua da euskara bezalako hizkuntzek duten erronka bat: onarpen sozialarekin sustatuak izatea gizarte demokratiko batean. Erresonantzia edo onarpen soziala izan dezaketen elementu diskurtsiboak identifikatzeak eta aztertzeak oinarri gisa balio lezake euskara sustatzeko, kulturalki anitza den eta testuinguru soziolinguistiko berezia duen lurralde batean: Nafarroako euskaldunen ehunekoa beste lurralde batzuetakoa baino txikiagoa da, eta banaketa geografikoa oso desberdina; hizkuntzaren babesari edo estimulari buruzko iritzi sozialak eragin berezia du; eta hizkuntza-politikaren inguruko elkarrizketa-maila baxua da.

Ikerketaren helburu nagusia nafar gizartean onarpen soziala lortzen duten, eta lortzen ez duten, euskararen sustapenari buruzko elementu diskurtsiboak identifikatzea eta aztertzea da. Helburu zehatza haien oinarrizko banaketa soziala ezagutzea: hizkuntza taldeen arabera (euskaldunak, erdaldunak), adin taldeen arabera, generoen arabera eta lurralde soziolinguistikoen arabera.

Metodologia mistoari jarraituz, 2023an zehar fase kualitatibo bat garatu zen, horretan, Nafarroako biztanleen profil soziodemografiko nagusiak ordezkatzeko zituzten pertsonekin taldeka lan eginez, gehien errepikatzen diren elementu diskurtsiboak identifikatu ziren. Hori kuantitatiboki balioztatu zen 2024an, ia mila pertsonari euskaraz eta gaztelaniaz egindako inkesten bidez.

Ikerlanaren ondorioak eta balorazioa

Txostenak, egindako ikerketa enpirikoaren inguruko datu zehatzak ematen ditu, euskarak Nafarroan duen errealitate soziala aztertu eta interpretatzeko. Ondorio nagusien artean aipa daiteke **Nafarroako biztanleen %63 euskara sustatzearen aldekoa edo oso aldekoa dela, eta %52k euskaldunen komunitatea erreferente positibo bezala hartzen dutela.**

Txostenaren zuzendari zientifiko eta erredaktore Xabier Erize soziolinguista eta Filologian doktoreak, eta Carlos Vilches soziologo eta Soziologian doktoreak [Euskararen sustapena Nafarroan, erresonantzia soziala duten elementu diskurtsiboetatik abiatuta](#) ikerketako emaitzak “berritzaile eta garrantzitsutzat” jo dituzte, Nafarroako gizartean euskara babesteko edo sustatzeko orduan. Emaitza horiek aplikazio praktikoak dituzte euskara edo eremu urriko hizkuntza batzuk hitz egiten diren lurraldeetan ere, eta gizartean erresonantzia zabala duten diskurtsioetan oinarrituta bultzatzea komenigarria izango litzateke.

Ikerketa berritzailea eta inspiratzailea

Ikerketa berezia eta diferentziala izan da: lehenengo aldiz egin da Nafarroan populazio osoari galdetuta, ez sektore jakin batzuei bakarrik, eta **metodologia** misto kualitatibo eta kuantitatiboa baliatuta; aplikatu diren **kontzeptuetan** (nahiz eta X. Erizek lehenago erabiliak izan); **emaitzetan**, orain arteko ikerketekin aldea ikusten baita; eta, azkenik, **emaitzen analisian**, fase kualitatiboaren eta kuantitatiboaren arteko barne kohesioa bereziki landu da. Gainera, beste hizkuntzetan ez baitira ezagutzen oraingo ikerlan honen osotasun sozial eta metodologikoa duen parekorik, nahiz eta mota askotariko azterketa soziolinguistiko on ugari dauden.

Ikerlana bideratu duten adituen azalpenen ostean, Arakamak bertaratuen arteko solasaldi labur bat gidatu du. Ikerlan honek zabaltzen dituen aukera desberdinen inguruko eztabaida bizia piztu da, besteak beste: Nola sustatu erresonantzia jaso duten elementu diskurtsiboak? Nortzuk eta nola egin dezakete? Zein eragin dute hizkuntza politikoei begira? Agerikoa da ikerlan honek ate eta ikuspegi berriak ireki dituela ondoren bideratu daitezkeen azterketa eta ikerketei begira, ez bakarrik Nafarroako lurraldean.

NOTA INFORMATIVA

Una innovadora investigación sobre el euskera en Navarra revela el elevado índice de apreciación de la lengua y de la comunidad vascohablante

Eusko Ikaskuntza y el Gobierno de Navarra – Euskarabidea han presentado el informe de conclusiones en el que se recogen discursos con resonancia social que pueden servir de base al fomento de la lengua vasca

Pamplona, 1 de abril de 2025. Hoy, 1 de abril, se han presentado en Pamplona los resultados de una investigación promovida por Eusko Ikaskuntza con apoyo del Gobierno de Navarra – Euskarabidea orientada a un mejor conocimiento de la realidad sociolingüística de la Comunidad Foral y de los valores con mayor resonancia entre la ciudadanía en torno al fomento del euskera.

En el acto han intervenido en representación de Eusko Ikaskuntza su presidenta, **Ana Urkiza**; la vicepresidenta segunda y consejera de Memoria y convivencia, acción exterior y euskera del Gobierno de Navarra, **Ana Ollo**; los investigadores y directores científicos del proyecto **Xabier Erize** y **Carlos Vilches**; así como el director gerente de Euskarabidea **Javier Arakama**.

Ana Urkiza ha abierto la sesión señalando los orígenes que propiciaron esta investigación, concretamente “el programa de trabajo de carácter participativo, deliberativo y abierto titulado *Gestión democrática de la diversidad en Navarra* que, mediante convenio entre el Gobierno de Navarra y Eusko Ikaskuntza, se llevó a cabo entre 2019 y 2023 (..) para conocer las fortalezas y las debilidades de la convivencia en la Comunidad Foral”. Ha agradecido la labor del equipo investigador “por dar a conocer las actitudes para fomentar el conocimiento y el uso del euskera en Navarra y clarificar el rumbo que se puede hacer de cara al futuro”. Para finalizar, ha apuntado al valor de la investigación ya que “corroborar que la lengua —las lenguas— no deben verse como elementos de fragmentación social, y sí de integración desde el respeto a todas las identidades”.

A continuación, Ana Ollo, además de agradecer a los investigadores su trabajo y poner en valor su trayectoria, ha subrayado la importancia del estudio por una doble razón. En cuanto al marco y finalidad, Ana Ollo ha recordado que se contextualiza en “una apuesta de colaboración estable del Gobierno de Navarra con instituciones como Eusko

Ikaskunza, que permite abordar los debates y planificaciones en materia de política lingüística con un soporte y una visión científica y analítica. Algo que propicia- ha añadido- un abordaje reposado y profundo, además de pulsar las opiniones y corrientes de fondo que se mueve en la sociedad a la que nos debemos”. Y en este sentido, la vicepresidenta y consejera responsable del departamento de Memoria y Convivencia, Acción Exterior y Euskera ha resaltado la utilidad de estas investigaciones para orientar las políticas lingüísticas de un Gobierno de Navarra que “refleja y tiene en cuenta la diversidad de nuestra comunidad, apuesta por la importancia de la convivencia –también la lingüística- desde la pluralidad y la diversidad; y, finalmente, ve el euskera como un valor añadido en el contexto europeo y un mundo cada vez más uniformizado”.

La investigación parte de la premisa de que las lenguas como el euskera comparten un reto: ser fomentadas con aceptación social en una sociedad democrática. La identificación y el análisis de elementos discursivos susceptibles de alcanzar aceptación o resonancia social, podrían servir de base a la promoción de la lengua vasca en un territorio culturalmente diverso y con un contexto sociolingüístico particular: el porcentaje de vascohablantes en Navarra es inferior a otros territorios y su distribución geográfica, muy desigual; las opiniones sociales sobre la protección o el apoyo de la lengua tienen particular incidencia; y el nivel de diálogo en torno a la política lingüística es bajo.

La investigación se fijó como objetivo principal identificar y analizar los elementos discursivos sobre la promoción de la lengua vasca con mayor y menor reconocimiento social en la sociedad navarra. Como objetivo específico, el conocimiento de su distribución social básica: por grupos lingüísticos (vascohablantes, castellanohablantes), por grupos de edad, por géneros y por territorios sociolingüísticos.

Siguiendo una metodología mixta, a lo largo de 2023 se desarrolló una fase cualitativa en la que, mediante trabajo en grupos con personas representativas de los principales perfiles sociodemográficos de la población navarra, se identificaron los elementos discursivos más recurrentes. Ello se validó cuantitativamente en 2024 mediante encuestas en euskera y en castellano a casi un millar de personas.

Conclusiones del trabajo de investigación y valoración

El informe ofrece datos concretos de la investigación empírica realizada para analizar e interpretar la realidad social del euskera en Navarra.

Entre las principales conclusiones puede destacarse que el **63% de la población navarra es favorable o muy favorable a la promoción de la lengua vasca**, y que el **52% tiene una referencia positiva de la comunidad vascohablante**.

Los directores científicos y redactores del informe [*Fomento del euskera en Navarra a partir de elementos discursivos con resonancia social*](#), el sociolingüista y doctor en Filología Xabier Erize, y el sociólogo y doctor en Sociología Carlos Vilches, han calificado los resultados como “novedosos e importantes” a la hora de abordar la promoción del euskera en una sociedad como la de Navarra. Son resultados que poseen asimismo aplicaciones prácticas para el conjunto de territorios donde se habla la lengua vasca u otras lenguas regionales o minoritarias, en los que la labor de fomento sería conveniente hacerla en base a elementos discursivos con amplia resonancia social.

Investigación novedosa e inspiradora

La investigación ha sido singular y diferencial: se ha realizado por primera vez en Navarra preguntando a toda la población, no solo a determinados sectores en concreto, y con una **metodología** mixta, cualitativa y cuantitativa; en los **conceptos** aplicados (aunque X. Erize ya los había utilizado anteriormente); en los **resultados** se ve la diferencia con las investigaciones realizadas hasta la fecha; y por último, en el **análisis de los resultados**, pues se ha trabajado especialmente la cohesión interna entre la fase cualitativa y la cuantitativa. Además, en el resto de las lenguas no se conoce un caso similar con la globalidad social y metodológica del estudio actual, a pesar de la existencia de numerosos estudios sociolingüísticos de alta calidad.

Tras las explicaciones de los expertos que han llevado a cabo el trabajo de investigación, Arakama ha dirigido un breve coloquio entre las personas asistentes. Se ha suscitado un intenso debate sobre las diferentes posibilidades que abre este estudio, entre otras: ¿Cómo promover los elementos discursivos son mayor resonancia? ¿Quiénes y cómo? ¿Qué influencia tienen en las políticas lingüísticas? Es evidente que este estudio ha abierto nuevas puertas y perspectivas de cara a estudios e investigaciones posteriores, no solo en el territorio de Navarra